

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Bataiatutako hurrak aingerutxo bihurtzen dira hil eta gero: aingerutxo bat da orain mutikoa, Kaxiano, uso txuri bat... —esan zidan ikusi ninduenean.

Eta nik ere negarrari eman zion hura ikusita.

Gero, aitzurra hartu eta kamelia zuriaren ondoan egin zuen zuloa, haurtxoari lur emateko, bi teila puskaren artean.

Handik aurrera behin baino gehiagotan ikusi izan nuen hilobitxoaren gainean errezatzen, bere bularrei zerien esnearekin lur hura ontzen.

Eta, horrela, gabon haietan, sasoia baino lehenago, pipil txuri batzuk ateratzen hasi zitzaizkion gure etxe aurreko kamelia bakartiari.

Ikusi al duzu, Kaxiano? Gure uso txuriaren taupadak dira...

Eta nik baietz esaten nion.

Eta ingurura begiratuta, gerrak aurrera egiten zuela ikusten nuen nik, baina Babiloniari begiratzen nion bakoitzean, gerra ongi galdua genuela konturatzen nintzen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Baina bai, egia da gaizki pasa nuela.

Eta ez osaba apaiza gogorra zelako, Klementez akordatzen nintzelako baizik.

Izan ere, egun batean ama eta Klemente etorri zitzaizkidan bisita egitera eta nik Klementeri begiratu nion eta haren begiek etxera joateko esan zidaten, joateko mesedez, bakar-bakarrik zegoela... eta hark etxerako bidea hartuta ni bertan geratuko nintzela konturatu zenean, negar egin zuen.

Zenbat akordatzen nintzen ni Klementez gauetan, oheratzeko orduan!

Gozo egiten bainuen nik lo harekin etxean, ohe berean!

Beste egun batean osaba apaizak zer moduz nengoen galdetu zidan eta nik gaizki esan nion, asko akordatzen nintzela gure etxeaz, ezin ahaztu nuela Klemente.

—Lasai, ohituko haiz eta...

Baina ni ez nintzen ohitu eta hurrengo urtean osaba apaizaren etxeko atarian nengoela Sultan gure etxeko zakurra ikusi nuenean, eta atzetik Klemente... osabari ezer esan gabe bueltatu nintzen etxera, haiekin batera.

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Eta lanean segitu zenuen... zeure ametsaren atarira arrano beltz bat hurrantzen ari zitzaizula jakin gabe.

Eta gero, deblauki, azal ikara batek hartu zintuen arras... Feliziano zure lurretan sartu zela ulertu zenuen.

Lasterka joan zinen, ihesi, arranoarengandik ihes egin nahian dabilen usoaren antzera, baina hutsalki, nafar hegoa baino azkarragoak baitziren arranoaren hegoak, hagitzez ere azkarragoak.

Arrano beltz bat sartu zen, bai, zure amets hartan eta bere atzaparrak sartu zizkion ihesi zihoan uso zuriari.

Nekatuta, lur jota, etxera ailegatu zinenean ekialdetik ilargiaren igitai gorria ateratzen ikusi zenuen.

Ilgora baitzen gau hartan.

Hil-gora...

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Ahaztu ezak hori, motel: ni ere ez ninduan maiorazgoa izan eta hala ere atera nian bizimodua, hire aitarena baino hobea oker ez banago... Igandeetan mezatara joaten garenean jendeak ez zioke hire aitaren txapel beltzari begiratzen, nire txapel zuriari baizik eta petxutik zintzilik eramaten ditudan kondekorazioei. Ez, hi ez haiz baserrian geldi egoteko jaio, jenerala izateko baizik; hi ez haiz hire aita bezalakoa jaio, ni bezalakoa izateko baizik! Horregatik, egia esan behar badiat, lehengoan aita maiorazgoa ukatu zianean, poztu egin ninduan. Tira, goazemak mendira tiro batzu egitera!

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
- > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
 1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Eta Trinidadok igitaia altxatu zuen... eta nik ez dakit zer gertatu zitzaion, baina igitaia goian zuela aurpegia zeharo aldatu zitzaion, ardi itxura hartu, odola bat-batean izoztu egin balitzaio bezala... nik suzko odol-tanta bat neukan bezala, hark ere jelazko odol tanta bat baitzeukan hor nonbait, bere gorputzaz jabetu zena... eta hari odola izoztu bezain laster, niri berotu egin zitzaidan, sutan jarri, Afrikako hartan bezalaxe, ilargiak zilarreztatutako Aitzondoko zelai hura ikusita gure etxearen armarrria baineukan gogoan, hura ere zuri-zuria, zilarrezkoa... eta zilarrezko zelai hartan otso beltzaren lepoa ikusten bainuen moztuta... eta armarrriak bere agindua eman zidan, otso mutur beltzaren lepoa mozteko, hura zela nire egitekoa, halaxe egin zuela Juditek ere Holofernesekin... eta nik igitaia hartu eta neure egitekoa egin nuen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Eta zirt edo zart egin behar zuela ikusi zuen, zirt eta zart egin zuen.

Eta handik astebetera nagusiari bere asmoak azaldu zizkionean txunditurik geratu zitzaion hura:

—Nik hiri horrenbeste irakatsi ondoren, lana bi urtetan eman ondoren... ordainez hau egin behar al didak hik niri orain?

—Berorrek barkatuko ahal dit, baina ongi pentsatutako erabakia da. Berorrek iazko bazkari hartan diruak ez duela bihotzik esan zidan eta dirua egin nahi duenak bere bihotza hiltzen jakin behar zuela lehenbizi.

—Baina pazientzia pixka batekin, hemen ere aterako haiz aurrera. Hasteko doblea pagatuko diat.

—Ez. Egun batean esan nion berorri batzutan haizea sartzen zaidala buruan, eta halakoetan ez naizela batere erraza konformatzen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Babilonia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Goiz erdian hamaiketako egitera eseri ginen, eta nik labana hartu eta eta gazta eta ogia ebaki nituen bai Klementerentzat, bai niretzat.

Hartan ari ginen, bada, hamaiketako egiten, ustegabeen tiroak, oihuak eta zaunkak gertutik entzun nituenean.

Nik jateari utzi nion eta Klementek ere bai, ni erne ikusi ninduenean.

Eta gero, bat-batean, ondoko basotik basurde zauritu bat etorri zitzaigun gainera.